

# URDAIBAI

2017  
zenb. 12  
.....

© MAGAZINE

“Moto gainekeo  
sentsasinoak  
apartekoak dira.  
Hori da nire gasolina”

Txomin Arana



- BIDE OSASUNGARRIAK URDAIBAIN
- URTUBIAGAKO BURDINOLA EAN
- ARROTEGI ANAIK, BUSTURIAKO ONGILEAK

- GAZTAINAK, KIRIKIÑOEN BABESEAN
- GORISTIA, BASOAREN ITZALPEAN
- TXISTUA SOINU BATEN BILAKAERA



# Portu onera iristea

*Llegar a  
buen  
puerto*



*euskadiko kirol portuak*  
*puertos deportivos de euskadi*

[www.ekpsa.eus](http://www.ekpsa.eus)

**BASQUE COUNTRY**  
LOGISTICS

*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

PUERTO DE HONDARRIBIA · PUERTO DE MOLA HONDARRIBIA · PUERTO DE DONOSTIA  
PUERTO DE ORIO · PUERTO DE GETARIA · PUERTO DE DEBA · PUERTO DE MUTRIKU  
PUERTO DE BERMEO · PUERTO DE MUNDAKA · PUERTO DE ARMINTZA · PUERTO DE PLENTZIA

## Ekin eta aurrera

Geure aldizkariaren 12. zenbakira heldu gara. Aldizkari hau aske jaio zan 2015. urtean, profesionalen lan talde baten espirituari eta hauen esperientziari esker, Nueva Europa S.Mren (Gernika-Lumo, 1995) lan taldea, hain zuzen be. Enpresaren ibilbidea dala eta ondo baino hobeto ezagutzen dau Busturialdea-Urdaibai eta inguruaren gizartea, ekonomia eta kulturagaz konprometitua dago.

Osotasunaren indarran sinisten dogu tokikoak daukon balioan oinarrituta. Ale hontako protagonista baten aurki daikegu honen adibidea. Bere kemena eta lanari esker eta inguruan daukon lagun talde handiaren laguntzagaz, laugarrenez Ereño, Bizkaia eta Euskadiko izena Rally Dakarrera eramango dau honek.

Geure orrialdeetan Europa zein mundua agertzen dira, sustraietatik hasita, kultura edota inguruan dauzkaguzan pertsonen jakingura eta geldiezintasunatik ikusita. Irekitasunak balio handia dauko komunikatzeko orduan. Eta komunikabide baten ekin ta ekin jarraitzea erraza ez bada be aurrera jarraitzen dogu. Euskarak, geure hizkuntzak, "saltzen" dauela frogatu dogu, baita tokiko informazioak interesa sortzen dauela be. Lerro hauek idazterako orduan, 20.200 pertsonatik gora jarraitzen gaitue interneten ([www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)). Eskerrik asko guztioi eta batez be proiektu serio eta xume honetan konfidantza jarri dozuen guztioi eta iragarkiak jarriz laguntza eskeintzen deuskuenei be. 2018ko lehen zenbakia 13.ena izango da. Irakurle maiteok, zeuon energia eta indarra igartzen dogu.

## URTE BARRI ON!

### HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:

[komertzial@nuevaeuropa.com](mailto:komertzial@nuevaeuropa.com)

tel: 94 625 06 06

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

### ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo  
Gernika-Lumo (Bizkaia)

[nuevaeuropa@nuevaeuropa.com](mailto:nuevaeuropa@nuevaeuropa.com)  
[www.nuevaeuropa.eus](http://www.nuevaeuropa.eus)

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.



# AURKIBIDEA



## ERREPORTAJEA 04

BIDE OSASUNGARRIAK  
URDAIBAIN



## VISIT URDAIBAI 08

ATXARREKO SAN PEDRO,  
estuariaoren zelataria



## ELKARRIZKETA 10

TXOMIN ARANA,  
pilotua



## LEKUKO 16

URTUBIAGAKO BURDINOLA EAN



## KALERIK KALE 18

ARROTEGI ANAIAK,  
busturiako ongileak



## SAL TSA-PORRU 22

GAZTAINAK,  
kiri kiñoen babesean



## BERDEAN 24

GORISTIA,  
basoaren itzalpean



## BETI-JAI 26

TXISTUA,  
soinu baten bilakaera



Ozollo. Gaategiz Arteaga

## IBILBIDE OSASUNGARRIAK, KIROLA OSASUN KULTURA LEZ SUSTATU

Sedentarietia, loditasuna eta elikadura-ohitura txarrek ekarritako gaixotasunek kirola ohitura osasungarri gisa egiteko korrantea ekarri dabe. Ekimen honek gune naturalek eta herrietako eremu ezberdinek eskeintzen dabezen aukerak aprobetxatzen dauz. Horrela, herriko inguru naturala, geografikoa eta historikoa ezagutzera emoten dauz. Helburu honi lotuta sortu dira Ibilbide Osasungarriak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak diruz-lagundutakoak. Publiko orokorrari egokitutako guneak dira, seguruak, ondo seinaleztatutakoak eta ekipatuak. Gaategiz Arteagak, Sukarrietak eta Elantxobek bat egin dabe filosofia honegaz eta bakoitzak bere ibilbide osasungarria sortu dau. Bizilagun aktiboak lortzea da asmoa, pixkanaka zahartzearen erronkari aurre egiteko.



**A**riketa fisikoak egitaren garrantzia sakontzeko eta kirola jarduera puntuala eta ohiz kanpoko ez izateko, kirol jarduera erraztuteari zuzendutako lan ildoak sustatzen dabe instituzioek. Herrietako eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeari begira sortu dira Ibilbide Osasungarriak. Oinez egiteko ibilbide hauek ohitura osasungarriak erraztu eta jarduera fisikoa sustatzen dabe. Segurtasun irizpideak jarraituz egokitu dira gune hauek, seinaleztapen espezifikoz eta ondo ekipatuak. Hauen diseinua eta profila ahalik eta erabiltzaile gehien aprobetxatzeko egokitu dira. Interesgune ezberdinak batzen dabez bide hauek eta eskuragarri jartzen dabez publiko anitzari eskeinitako esfortzu aukera eta maila ezberdinak.

### 1000 Azules

Taberna  
946 035 531  
Móvil: 628 548 572

Pablo Picasso, 7 bajo • 48300 GERNIKA



### 1000 kolorau

Taberna - Jatetxe  
946 257 619  
Móvil: 628 548 572

San Juan Ibarra Plaza, 9 • 48300 GERNIKA



1



2



3



4

Ibilbide Osasungarriak biztanleria osoari zuzenduta dagoz, batez be kirola egitea ohikotzat hartzen ez dauen publikoari oinez ibiltzeko gonbidapena luzatuz. Euren ohiturak aldatu eta euren neurriko pizgarriak behar dauzenei zuzenduta dago ekimena, erosotasunez eta modu errazean, onura eskuragarriak lortzeko. Ezaugarri hauen barne dagozen pertsonak arrisku taldeak dira be, euren ohitura sendetarioak direla eta.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak diruz-lagundu dau Ibilbide Osasungarri hauek martxan jartzea eta honetan hiru herrietako osasun-profesionalek parte hartu dabe. Elantxobe, Gautebiz Arteaga eta Sukarrietako medikuek medikuntzako ekarpenak egin dabez proiektuan. Herriko kontsultategiak Ibilbide Osasungarrien informazioa eta ezaugarriak zabaltzeko erreferentzia-puntuak dira. Erabiltzaileek gogobetetasun-inkestak izango dabez eskuragarri, ibilbidearen "onuradunak" bilakatu ondoren. Sumatutako hobekuntza fisikoen gaineko hauen iritzia ezinbestekoa da, baita hauen ekarpenak be.

Biztanleriak jarduera fisikoa areagotzeko ekimenaren barne dagoz Ibilbide Osasungarriak, pixkanako zahartzearen arriskuari aurre egiteko eta osasun sistema eusteko.

## OINEZ IBILTZEAREN ONURA FISIKOAK ETA PSIKOLOGIKOAK:

- Ibiltzeak odol-zirkulazioa eta tentsioa hobetu egiten dauz, muskulatura indartzen dau eta indarra eta erresistentzia ematen deusku; gaitasun kognitiboa bultzatu eta estimulatzen dau, arazo kardiobaskularrak prebenitzen dauz eta gehiegizko pisua kontrolatzeari laguntzen deusku.
- Gune natural baten ibiltzeak estresa eta depresioa murrizten dauz eta gogo-aldartea hobetu egiten dau. Naturagaz kontaktuan egoteak sentzasio onuragarriak, energia eta bizitasuna eskeintzen deusku.

1. Elantxobeko ibilbide osasungarriko bista ederrak
2. La marisma parkea, Sukarrieta
3. Elantxobeko autobus geralekua
4. Sukarrietako ibilbide osasungarriko zati bat



## GAUTEGIZ ARTEAGA

Ibilbidea Zelai Eder parkean hasten da. Bertan gimnasia egiteko ekipamendua dago eta ibilbidearen interpretazio panela be. Gaztelutik igarotzen da ibilbidea eta Ozollo auzora zuzentzen da, errotara heldu arte. San Lorenzo baselizatik, Isla auzoan, BI-3234 errepidera doa. Oso metro gutxira errepidea utzi eta Portua auzora sartzen da. Hemendik, ibilbideak barrero eramango gaitu Gazteluaren ingurura eta Arteaga Uriko bideak jarraituz, ibilbidea Bird Center-era heltzen da, bidearen amaieratik hur.

Distantzia	4,89 km
Igotzeko maila-aldaketa metatua	48 m
Bajatzeko maila-aldaketa metatua	65 m
Gehiegizko altitudea	31 m
Gutxienezko altitudea	2 m
Zailtasuna	Erraza



## SUKARRIETA

Hasiera puntua La Marisma parkean kokatzen da bertan ibilbidearen interpretazio panela dago, frontoiaren ondoan dagoen jolasgunetik hur. Ibilbideak frontoira zuzentzen dauen bidea jarraitzen dau, errepide orokorrera heldu arte. Errepidea gurutzatu eta Abaroa auzoan sartzen da. Hemendik Portu Errekaren bideatik jarraitzen da. Bertan, erabiltzaileek gimnasia egiteko makinak aurkituko dabez. Ibilbidea Portu Errekan bukatzen da.

Distantzia	1,49 km
Igotzeko maila-aldaketa metatua	30 m
Bajatzeko maila-aldaketa metatua	29 m
Gehiegizko altitudea	35 m
Gutxienezko altitudea	4 m
Zailtasuna	Erraza



Busturialde,  
**EUSKARA** eta  
**URDAIBAIEN alde**



## ELANTXOBE

Gaur egun berreskuratutako antxinako latsarrian dago kokatuta hasiera puntua, Portu Kalen. Bertan, ibilbidearen interpretazio panela dago. Ibilbidea portutik gora egiten dau errepidetik, Lamerara zuzentzen gaituen biderarte. Autobusak buelta emoteko plataformararte jarraitzen dau, Bide Kalean, eta hortik behera egiten dau oinezko bidea jarraituz Talaiararte. Kale Nagusiatik eta Portu Kaletik behera egiten dau porturantz. Hegoaldeko kaian sartu egiten da eta bertan joan-etorria eginez bukatzen da ibilbidea. Portuan gimnasia egiteko aparatuak dagoz



Distantzia	1,88 km
Igotzeko maila-aldaketa metatua	71 m
Bajatzeko maila-aldaketa metatua	79 m
Gehiegizko altitudea	87 m
Gutxienezko altitudea	2 m
Zailtasuna	Erraza

- 5. Itsas-errotia, Gautebiz Artega
- 6. Portuerreka bidea, Sukarrieta
- 7. Elantxobeko portua

 **Busturialdeko**  
mankomunitatea

# Jasangarritasunagaz bat!




94 625 68 84 - 94 625 47 22 / [busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org](mailto:busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org)

# ATXARREKO SAN PEDRO, *estuarioaren zelataria*

**U**rteko azken egunean mendi baten tontorrera igotzea oso tradizio bizigarria da. Urdaibain Illuntzar, Katillotxu edota Atxarreko San Pedro dira nagusi. Guzti hauetan paisaia ederra izango dozu zain eta herrietako mendi taldeek jarritako “*jaiotzak*” be. Egun oskarbian, Atxarreko San Pedrorra igotzean, ikuskizun naturala eta bista apartekoak izango dozuz.





Urte barria naturaz gozatuz hasteak eta gailurrera heltzeak eskeintzen dauen osotasun sentimendua bizitzeak, energia bultzada handia suposatzen dau. Egun esanguratsua da, sinbolismoz beterikoa. Urte barriari aurre egiteko behar dan energia hartzeko eta "berpizteko" era ona da hau, lagun artean, familiagaz edota bakarrik egiteko. Herri bakoitzak bere gailur erreferentea dauko. Geure eskualdean Illuntzar, Katillotxu edota Atxarreko San Pedro dira nagusienak. Hiru hauetan tontorrean jaiotzak jartzeko ohitura betetzen da. Mendizaletasuna gabon espirituagaz elkartzen dauen errituala da hau.

## Indarbarritzeko bistak

Atxarreko San Pedrorra igotzea erraza da, guztiz irisgarria da. Bere basoan murgiltzea abentura polita da. Artadi Kantauriarraren mantu zarratuak inguratuko gaitu eta igoera guztian zehar bertan egongo da; Artadian ohikoak diren espezie botanikoak bilatu ahal izango doguz, kasuan kasu, endalarra, apomahatsa, otzar basatia, laharrak edota atxaparrak. Azken txanpa oso laburra da baina gogorrena da. Gailurrera heltzeak emoten dauen poztasunari padura, itsasoa eta Urdaibaiko kostaldearen gaineko bista ikusgarriak gehitzen jake.

Tontorrean San Pedro basiliza txikia aurkituko dogu. Angeluzuzen formako nabe bakarraz osatua dago basiliza, lur egosiz egindako baldosadun zoladuraragaz. Hasierako basiliza XV. mendean eraiki zan eta askotan berreraiki da. Sasoi baten ermitau etxea izan eban. Antxina, San Gregorio egunean, prozesioan igotzen ziran ibarrangelutarrak basilizara eta mezan gatza bedeinkatzen ebeen. Gatz hori Dantzalekun sakabanatzen ebeen gero. Dantzaleku Atxarrerako igoeran kokatua dagoen zelai bat da eta bertan ilargi erdia marrazten daben hiru harri handi dagoz. Dinotenez, akelarreak ospatzen ziran bertan aspaldi, horregatik, gatza sorginak uxatzeko helburuagaz sakabanatzen zan. Bestalde, gatz hori bedeinkatutako uretan disolbatu ondoren ortuetan be sakabanatzen zan uzta oparoa eskatzeko.

Atxarreko San Pedroren gaineko legenda asko dagoz. Jose Maria Barandiaranek hoietako bat gorde eban. Legenda horrek Ibarrangelun harri handi bat egoala dino, oinatza baten formako zuloagaz. San Pedrokoa zala esaten ebeen. Santu honek Atxarre menditik bajatzean Armenduan pausu bat eta beste pausu bat Ibarrangelun eman ebal esaten zan, bietan bere oinatza utziz.

**Altitudea:** 312 m.

**Mendigunea:** Burretxagana

**Ibilbideak:** Kanalatik (2,5km - 1h)  
Akordatik: (2km - 45')

**Ibilbide zirkularra:** Laida - Kanala - Atxarreko San Pedro - Akorda - Gametxo - Laida (8,4km - 2h 45')

# “MOTORRA GAINEKO SENTZASINOAK APARTEKOAK DIRA. HORI DA NIRE GASOLINA.”

TXOMIN ARANA



**Motibazinoak**, gainditzeak, ilusioak eta adrenalinak piztuten dabe Txomin Arana pilotu ereñotarraren motorra. Honek, lesio gogor baten ondoren, bere laugarren Dakarran (2018) parte hartuko dau, munduko rallyrik garrantzitsuenean. Euskadin pilotu erreferentea da. Bere historia “*egiteko gogoaren*” historia da, “*indarrak edonon bilatzea*” rena, lan guztiak merezi dauelako, egiten dozuna gustatzen bajatzu, motor gainean ibiltzea.

Urte oso bat egon zara dike lehorrean lesio gogor bat izan ostean eta barriro be motorra gainera igo ziñen Busturialdean ospatutako Euskadiko Enduro Txapelketan. Zergatik aukeratu zendun froga hori martxan hasteko barriro?

Kasualidadea izan zan. Enduroko Txapelketa Arratzun ospatu zan maiatzaren 28an eta aste bat arinago alta hartu neban. Lesioagatik jarritako burdinak otsailan kendu eustazan. Orduetik aurrera

motorra gainean ibiltzeko gai izan nintzen barriro eta lasterketa hau antolatzen genbiltzenez, azken orduan parte hartzea pentsatu gendun. Baina presio barik...ta azkenean irabazi neban.

Orduan etxeko zirkuitua zan, Busturialdean. Baina zeure entrenamenduak kanpoan egiten badozuz be, etxean ibiltzea gogokoa dozu?

Bai, noski baietz. Etxean ibiltzeak guztioi motibatzen gaitu. Azken finean, lagunen artean zagoz, etxekoak,

eta bai, horrek motibatzen dau ...Gainera, ingurua ezagutzen dot ondo, baina motorra gainean ez naz ibiltzen asko hamendik. Hemen bizikletan mugitzen naz gehiago.

**2016ko apirilaren 7ko Abu Dhabi Rallyko lesioa, lesio serioa izan zan...**

Bai, lesio serioa izan zan. Hasiera batean askoz be larriagoa izango zelakoan geunden, gurpil-aulkian geratzeko zorian egon nintzen eta. Baina ez zan holan izan. Oso mediku on batek operau eusten. Honek nik zutunik jartzeko borrokatu eban eta lortu eban. Hortik aurrera moto gainera igotzeko pentsatzen hasi nintzen...eta ordutik aurrera guztia joan da ondo. Oso pozik nago.

**Zure karreraren amaiera izango zala pentsatu zenduan?**

Bai. Ebakuntzaren ondorengo bi astetan inoiz gehiago ez nebala motor gainean ibiliko pentsatu neban, min handi neukan eta. Baina gero guztia pasatu egiten da. T7 ornoa apurtu neban, T6 eta T8a ornoak zanpatu nebazan. Ez dot askorik ulertzen baina, bai lesio larria izan zan, haustura txarra izan zan.

**Nondik atara dozu moto gainean barriro jartzeko indarra?**

Azkenean, lehen egiten zenduena barriro egiteko gogoek indar gehiago egiten dabe, moto gainean ibiltzeko gogoak...Indarra edonondik ataratzen dozu. Moto gaineko sentsazioak apartekoak dira. Horixe da nire gasolina.

**Zeintzuk dira sentsazio hoiak?**

Nik asko gozatzen dot motorra pilotatzen, oso gogokoa dot. Beste batzuk bestelako kirol batzuk egitea gustukoa daukaten bezala. Zaletasun handia daukat eta ahalik eta ondoen egiteko ahaleginak egiten dodaz.

**Lesioa gainditu ondoren, aurretik guztiak izan dira erronkak. Dakar 2018a begi bistan dago orain. Ze itxaropenak daukazuz?**

Heltzea izan da berez erronka bat. Eta lortu dot. Oso harro nago bertan egoteagaz. Eta behin Dakarran egonda amaitzea izango da erronka eta ea lehenengo 30 postuen artean geratzen garen. Gehiago eskatzea gehiegi izango zan eta. Baina ikusiko dogu. Nik baietz uste dot. Pilotatzeko %100ean ez nago, lehenengo moduen, baina...oso motibatuta nago eta nire burua gai ikusten dot.



*"Dakarran egonda amaitzea izango da erronka eta ea lehenengo 30 postuen artean geratzen garen. Gehiago eskatzea gehiegi izango zan eta"*



*"Gurpil-aulkian geratzeko zorian egon nintzen "*

Txomin Arana, 2009an

## Zelakoak izan dira Dakarrerako prestatzeko entrenamenduak?

Urte guztian zehar rallyak egin dodaz, 6-7 eguneko lasterketak, eta hori prestateta ona da. Dakarra oso luzea da, 15 eguneko lasterketa da, egunez egun moto gainean. Ebakuntzaren ondoren bildurra emoten eustan lasterketa luze bat egiteak, ez nekielako nire gorputzak nola erantzungo eban. Baina lehenengoko frogan ondo moldatzen nintzela ikusi neban. Moto gainean hainbeste ordu daramatzadaz eta prest nagoela uste dot. Aurton, mundu guztian zehar ibili naz rallyetan. Lehenengoa Cerdeñan eta beste bi Marokon. Marokoko biak, bata bestearen atzetik izan dira, eta egunei dagokionez Dakar bat bezala izan da.

**Dakar bat bakarrik korritzen da, baina atzean talde bat dago. Talde honek, besteak beste, finantziarazinao bilatzen laguntzen deutsu. Ze talde dago Txomin Aranaren atzean?**

Motoklub Gernika Off Road da taldea, lagun taldea da. Honek urte asko daramatza niri laguntzen. Hauek lasterketak antolatzen dabez eta lau urtetik hona, lan izugarria egiten dabe Dakarrera joan ahal izateko. Aurtongoa 4. Dakarra da niretzako. Eta lan

asko egiten dabe. Gainera, Busturialdeko lagun askoren babesa daukat. Motz geldituko nintzateke... azkenean asko dira eta. Eskerrik asko guztiei euren babesagatik.

**Zertan pentsatzen dozu hainbeste ordu moto gainean egonda basamortuan? Zerk laguntzen deutsu aurrera egiten? Zer daukazu buruan?**

Gauza asko, egia esan. Ordu asko dira motorra gainean eta buah...Laguntza emoten deutsun jende guztia gogoratzen dozu, familia...lagunak. Loturako ordu asko dira moto gainean; goizaldeko 4etatik goizeko 8ak arte, errepidetik goaz zati berezia hasi arte. Ordu hoietan gauza asko dekozuz buruan.. Gero, lasterketan zagozenez, kontzentrazioa handia da. Zeu zara, motorra gidatzen zagoz abiada handian eta ezin dozu beste gauzarik pentsatu.

**Motorra zeure lagun mina da. Ze motorra eramango dozu Dakarrera?**

Aurton Husqvarna eramango dogu. Orain urte bi eraman neban da, istripua izan neban moto bardine. Daukagun aurrekontua eskasa da eta daukagunagaz joango gara.

**Dakar bat egiteko, diru asko behar da, ezta?**

Bai. Sudamerikan egiten da eta ekipo guztia bertara eramateak diru asko suposatzen dau. Gero, lasterketa 9000 kilometrokoa da eta ia 10.000 litro gasolina behar da horretarako. Bai, oso garestia da, baina munduko rallyrik garrantzitsuena da.

**Baina, merezi dau, ezta?**

Bai, bai...noski baietz.

**Honarte heldu bazara be zure karrera orain urte asko hasi zan. Noiz eta zenbat urtegaz hasi zinan?**

6 urtegaz hasi nintzen lehiatzen, orain 32 urte daukadaz. 12 urterarte, orduan Espainiako motokross txapelketa egin neban. Baina gero etenaldi bat egon zan, moto gainean ibiltzeak diru asko kostatzen dauelako. Korritzeari itxi nion lan egiten hasi nintzan arte. Motorra bat erosi neban eta apurka-apurka hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen...Orduan Gernika Off Road taldea hasi zan neuri laguntza eskeintzen eta horrela hasi nintzen.

**Ordutik hona, zer ikasi dozu?**

Gustatzen jatzunagatik borrokatu egin behar dozula ikasi dot. Asko kostatzen da baina aurrera jarraitu ezkerero lortu ahal da.

**Zuk enduro eta motokross-a egin dozu. Motorzaleak ez direnentzako, zelan bereizten dira kirol modalitate bi hauek?**

Gehien egin dodana nire bizi guztian motokross-a da. Motokross-a zirkuitu zarratu baten egiten dan lasterketa da, 40 bat pilotu hesi baten atzetik irtetzen dira. Kontaktu handiko lasterketa da. Motoziklismo lasterketa bat bezala, gutxi gorabehera, baina lurran eta saltuekaz. Enduroa, ostera, rally bat da, kotxeen rallyak bezala. Lasterketa kronometratutako zatietan egiten da, baina bakarka irten behar da. Lasterketa kronoaren kontrakoa da. Zeu motorra gainean zara. Orain, raid-etako rallyak egiten dodaz, horixe da Dakarra. Enduroa bezala baina raid-ak.

**Denbora guzti honetan, moto gaineko zeure bizipen guztiekaz, egin dozuzen rally guztiekaz. Zein izan da zeure lorpenik handiena?**

Nik uste dote gin dodazen hiru Dakarrak. Lehenengoa, 2014. urtekoa. Amaitu nebalako eta korritu neban lehen Dakarra izan zalako. Hori berezia da. Bigarrena, 2015. urtekoa, oso postu honean



geratu nintzelako, lehengo 16en artean. Dakar hoiekaz geratzen naz. Hirugarrena, 2016. urtekoa, be egin neban baina ez neban amaitu jauzi nintzelako. Baina hortxe egindako zatikako lasterketakaz pozik nago.

**Motoklub Gernika Off Road taldeak urte asko daramatza niri laguntzen.**

**Lan asko egiten dabe. Gainera, Busturialdeko lagun askoren babesa daukat. Motz geldituko nintzateke...azkenean asko dira eta. Eskerrik asko guztiei euren babesagatik**

**Zein da zure helmuga? Norarte helduko zara?**

Hasteko, aurtongo Dakarra korritzea eta gero gerokoak. Oso gatz dago guztia eta beste lasterketa batzuk korritzea ez dakit posible izango dan. Aurton oso ondo egin ezkerero eta markaren batek laguntzen badeusku...baina ez dakit...gatz ikusten dot. Dakarretik aurrera ikusiko da. Dakarra urtarrilaren 6an hasi eta 20an bukatuko da.

**Txominek badauko gasolina asko oraindik. Dakarra lehenengo erronka da baina ziur gehiago be egiteko asmoa daukazula...**

Bai, horrela itxaron dezagun. Motorragaz eta abiaduragaz lotuta badago... Mailan gorenean 35-40 urterarte lehiatu ahal da.

**Oraindik Dakarra irabazteko astia badaukazu orduan...**

Ja, ja, ja... Orain daukadan adina onena da...eta esperientzia hartzen bagoaz...

**Zorte ona izan Dakarrean Txomin  
iEgunetik egunera jarraituko zaitugu!**

>>>



## TXOMIN ARANA



## PALMARESA

Euskadiko Moto  
Euskadiko Moto Txapelduna  
Euskadiko Moto  
Euskadiko Enduroko

Txapeldunordea- kross Kimu 93  
- Kross Kimu 95  
Txapeldunordea - Kross Junior 04  
Txapeldunordea - Junior 05

- 14. Espainiako Moto Txapelketa - Kross MX1 07
- 20. Frantzako Moto-Kross Txapelketa- Kross Elite OPEN '08
- 25. GP-Spain Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 08
- 6. Espainiako Kross Txapelketa- Country Arratzu09
- Euskadiko Moto Txapeldunordea- Kross Elite 10
- Ipar Aldeko Moto Txapeldunordea- Kross Elite 10
- 21. GP-Germany Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 10
- 18. GP-Switzerland Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 10
- Euskadiko Moto Txapelduna- Kross Elite 11
- 13. GP-Greece Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 11
- 18. GP-Bulgary Munduko Moto Txapelketa- Kross MX3 11
- 20. GP-France Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 11
- 20. GP-France Munduko Moto Txapelketa -Kross MX3 12
- 19. GP-Bulgary Munduko Moto Txapelketa - Kross MX3 12
- 20. GP-Eslovenia Munduko Moto Txapelketa -Kross MX3 12
- 6. GP-Inglaterra Munduko Moto Txapelketa -Kross MX3 13
- 39. Munduko Moto Txapelketa -Kross MX3 13
- 56. Rally Dakar 14.ean
- 7. Europako Moto-Kross Txapelketan -Kross EMX-300 14
- 16. Rally Dakar 15.ean
- 14. Europako Moto-Kross Txapelketan EMX-300 15
- 2. Greziako Rally Serres 2017an
- Espainiako Rally Txapelduna 2017



# SAN ISIDRO

**Sociedad Coop. Agrícola Ganadera  
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkarte**

Bekoibarra, 25 pab. 8-14 - Edificio Sollube  
48300 GERNIKA-LUMO

Tel. 94 625 03 20 - Fax 94 625 68 71  
Email: redisidro@telefonica.net

## Txakolina

Embotellado para  
Alex Mestraitua  
(Arratzu) por  
R. E. 6736/BI  
Larrabetzu  
SPAIN





Goi-mailako  
elikagaiak  
Alimentos de  
calidad superior

# gurearen zaporea el sabor de lo nuestro



*Eusko Labelak marka ziurtatuko  
kalitate goreneko eta zapore bikaineko  
produktuak eskaintzen dizkizu.*

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena  
ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako  
eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure  
ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura

iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamena.

*Eusko Label te obrece unos  
productos de marca certificada  
de la máxima calidad y excelente sabor.*

Nuestros baserritarras y arrantzales sacan lo mejor  
de nuestra tierra para ti. Productos agroalimentarios producidos,  
transformados y/o elaborados en Euskadi.

Comprando Eusko Label no solo te llevas la más alta calidad,  
también contribuyes al mantenimiento de nuestra economía, de  
nuestro sector primario, nuestros paisajes y nuestra cultura.

Es el placer de lo nuestro.



LANDA, ITSASERTZ ETA ELIKAGAIEN SUSTAPENA  
DESARROLLO RURAL, LITORAL Y ALIMENTARIO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Lekuko

# URTUBIAGAKO BURDINOLA EAN

**K**ostatik hurr, Eako itsasadarraren ezkerrean, basoaz inguratutako gunen naturalean, Urtubiagako hormek, arkuak eta burdinola eta errotaren antzinako presek bat egiten dabe paisaia naturalagaz. Iragina industrialaren aztarnak dira, gaur egun interes kulturalako monumentua.





**U**rtubiagari buruzko lehen aipamen dokumentalek bilduma industrial hau **XV. mendean** ezartzen dabe. Garai hartan Martin de Zarakondegi zan burdinolaren ugazaba. Hipotesi batzuen arabera Erdi Aroan dago bere jatorria. Burdinolek oinarritzko hiru elementu behar izan dabez: ura, burdin mea eta ikatza. Eako herriak hiru elementu hauek eukazan eta ola bat izateko ezinbesteko ezaugarriak: ur emariak eta itsasadarrak emondako indar eragilea; erregaiaz hornitzeko basoak inguruan (haritzak, arteak, pagoak eta gaztainondoak); eta itsasoaren ondoan egoan, merkantziak garraiatzeko.

**XVI. mende** erdi aldera Urtubiagak ia ez eukan baliorik, burdinola porrot eginda egongo baitzen ziurrenik. Halanda be, urtegia eta ibaiko uren gaineko eskubideak eukazan oraindik. 1556. urtean Juan de Solartek erosi eban, baina ez bera ez bere oinordekoak ez ziran burdinola barriro abian jartzeko gai izan, eta beraz, bi mendez desagertuta egon zan, sasitzak janda.

Egungo burdinola **1725ean** eraiki zan goitik behera. Erdi Aroko lantokia egoan toki berean altxatu ebeen, baina garaiko aurrerakuntza guztiak jarrita. Jatorritzko burdinolako zenbait horma oraindik be ikus daitekez ikaztegiak egon ziran inguruan. Urtubiagako burdinola barriaren bultzatzaileak Catalina del Puerto (Juan de Aranzibiaren emaztea) eta Martin de Larizolaeta izan ziran.

Burdinolak mende bat baino gehiago eman eban jardunean. **XVIII. mendean** euskal ekoizpen siderurgikoa barriztatzeko egindako ahaleginaren adibide ezin hobea da Urtubiaga. Nabarmentzekoak dira, batez be, bertako egur-ikatz biltokien handitasuna, harlanduz egindako andapara eta tunel hidraulikoaren egitura sendoa.

### *XVIII. mendean euskal ekoizpen siderurgikoa barriztatzeko egindako ahaleginaren adibide ezin hobea da Urtubiaga*

Erabiltzen zan mea Somorrostrokoa zan batez be, baztertzen ez bada be ingurukoaz be baliatzea, hala nola Natxitukoaz (Olagorta) edota Ispartekoaz. Izan be, Eako portugaz lotuta egoan gurdibidearen bitartez.

Burdinolak eta errotak atxikitako 4 eraikinez osatutako etxe eta ekoizpen multzoa osatzen dabe. Honen barne, sistema hidraulikoa (presa, antepara eta erregulazio uraska) eta harrizko zubi bat dagoz. Errotaren aurrekaldea landaretzaz estalita dago, baina oraindik kontserbatzen da makineriaren parte bat. Aurrez aurre olaren etxebizitza dago. Eraikin honetan gelak, korta, biltokiak edota errotariaren etxea egozan. Beheko solairuko pasabideak eraikin multzoa kanpokaldeagaz lotzen dau. Eraikin hau Olagoikoa izenez ezagutzen zan eta atxikitako bestea Olabekoaren errota da. Burdinolaren eraikina ondo kontserbatuta dago eta horrela egoan osatuta: tunel hidraulikoa, burdina egiteko tailerra, ikaztegiak eta bulegoa edota kontrolatzeko tartea.

Oro har lau lagunek egiten ebeen behar Bizkaiko burdinoletan. Alegia, tiratzaileak edo makinak lanean jartzen ebezenak, bi urtzailek (labea bete eta mearen urritzea zaintzen ebezenak) eta gatzemaileak edo edozertan laguntzen eban mutilak. Jorjala lortutako burdinaren arabera izaten zan.

Burdinoletan egur asko erabiltzen zan eta produktu siderurgikoen eskaera nagusia nekazal sektoretik zetorren. Laborantzako lurrak gehitu ziran XVIII. mendeko bigarren zatian eta honek nekazaritza-lanabesen beharrizanak gehitu ebazan. Etxe gehiago eraiki ziran be eta horretarako burdinolen produktuak behar ziran, iltzeak, burdinkiak, gurdiak edota animalientzako ferrak. Bordelera be eroan izan zan itsasoz Urtubiagako olako burdina, burdin landuzko totxoak eta barrak. Baina **XVIII. mendean** Euskal siderurgiaren krisia hasi zan. **XIX. mendeko** bigarren zatian teknika industrialak hedatu ziran eta honen ondorioz burdinaren artisauekoizpenaren krisia sortu zan. Hau dala eta, antxinako burdinolak artoa ehotzeko moldatu ziran eta landa inguruko bestelako beharrizanei erantzuteko erabili ziran.

Urtubiagako burdinola eta errota Ea herriko iragan industrialaren lekukoak dira.





# ARROTEGI ANAIAK, BUSTURIAKO ONGILEAK


A

rrrotegi abizenaren jatorria Ereñon dago. Geroago Urdaibaiko herri ezberdinetara zabaldu zan eta Busturian nagusitasuna lortu eban. Nikolas eta Manuel Maria Arroategi Amunategi anaiak XIX.mendearen amaieran negozio-gizon garrantzitsuak izan ziran eta Busturiako ongile nagusiak ziran. Herriko hiru eskoletatik bi eta Arroategui Egoitzaren eraikina, anaia bi hauen dohaintzak dira.

A  
rratzu

INNOVACIÓN  
FUTURO  
PROGRESO

**Bizkaia**  
azpiegiturak



**ELKARTEGI  
LANGUNEA**



**LOS INTERESADOS**

en establecer su proyecto empresarial en "Arratzu Elkartegi Langunea" pueden contactar aquí:

azpiegiturak@bizkaia.eus/ Tel. 946 073 700



Busturiako Axpe auzoko Nikolas Arrotegi plaza

Braulia Amunategi eta Nikolas Arrotegi senar-emazteek, Arrotegi anaien gurasoak, Busturiako bizitzan aktiboki parte hartzen ebeen. Nabigatzaileen Kofradiaren sortzaileetarikoa bat izan zan aita eta merkantzia-ontzietako itsasgizona zanez negozioak egin ebezan itsasoz bestaldean. Marinel-tradizio hau bere semeek hartu ebeen oinordetzan, biak merkantzia-ontzietako itsasgizonak.

### ***Nikolas Domingo Arrotegi Amunategi,***

Kanalan jaio zan 1827an eta Busturian izan eban bere bizileku. Itsasontzien armadorea eta merkataria izan zan.

Garai baten Liverpool-en bizi zan, bertan familiako itsas-negozietan lan egin eban; ontzi ezberdinetan nabigatu eban (Pepita goleta, Áncora, Sofia bapora, Ascensión, Don Juan...). Era askotako merkantzia garraiatzen eban: makailoa, nakarra, alkondarak edota Bilbon saltzeko bestelako produktuak. 1887an Axpen bi etxe eukazan eta geroago, 1910. urtean, Busturian bost baserri eukazan eta beste hainbeste eraikinetako jabea zan.

Herriko bizitzan aktiboki parte hartu eban eta 1885.enetik 1902.enera herriko alkatea izan zan. Saboyako Amadeo erregearen aurrean aurkeztu zan Busturiako ordezkari gisa.

**Gure eskualdea  
bermatuz**

URREMENDI

Landa Garapen Elkarte / Domingo Alegria enparantza, z/g - 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
Tel: 94 625 76 097 / [www.urremendi.org](http://www.urremendi.org) / [urremendi@urremendi.org](mailto:urremendi@urremendi.org)



*1907. urtean Arroategi Fundazioa  
egin zan Nikolas Arroategik  
emondako ondasunekaz*



Bere herrikideekaz eskuzabala izan zan beti eta hauei emon eutseen bere ondasun gehienak. 1872. urtetik eta 1877. urte bitartean ezkondu tako busturitarroi 2000 pezetako dohaintza egin eban; Altamirako erietxea eraiki eban eta 1907. urteko azaroaren 20an herriari emon eutson dohaintzan, bertan herriko behartsuak eta gaixoak hartzeko. 1907. urtean Arroategi Fundazioa egin zan berak emondako ondasunekaz, Nikolas berak horrela gura izan ebalako. Bere testamentuan horrela agindu eban: berak eta bere emaztea hil ondoren, euren bizilekua izan zan jauregia pobreentzako eta gaixoentzako izatea, "Arroategi Egoitza" izenagaz. Horrela egin zan 1916. urteko urtarrilaren 1etik aurrera eta gaur egun hirugarren adineko egoitza da. Nagusien egoitzaren eraikinetako zaharrena euren etxea izan zan. Fundazio

**GAUTEGIZARTEAGA**  
pausoz pauso



**BIZITZEKO**  
HERRIA

ezberdinak sortu ebezan, hauen artean, emakume ezkongaei laguntza emoteko funtsa. Baina egoitza eta nagusien harrera eta zainketarako Fundazioa da mantentzen den bakarra. 1892. urtean Arroategi Egoitzatik hur dagoen Axpe auzoko nesken eskola be emon eban.

Nikolas Domingo Arroategi Amunategi 1910. urteko apirilaren 6an zendu zan, 82 urte ebazala, biriketako katarroagatik. Petra bere bigarren emaztea, 1915. urteko azaroaren 3an hil zan Busturian, 60 urte ebazala. Busturiako herriak Axpeko plaza bati Nikolas Domingo Arroategiren izena jarri eutson bere ohorez.

**Manuel Maria Arroategi Amunategi,** merkataritza-nabigazioko kapitaina izan zan eta Bizkaiko diputatu ohia eta Gorteetako diputatu ohia izan zan be. Bere anaia bezala Busturiako ongile handia izan zan. 1886. urtean udalerriri emon eutson Axpeko auzunean, Udaletxetik hur dagoan mutilen eskola. 1877. urtean egin zan ikuskapenean Busturian eskatutako baldintza higienikoak eta pedagogikoak bete eban lehen lokala izan zan.

Busturiako Udalak, bere esker ona erakusteko, 1915ean adopziozko seme izendatu eban Manuel Maria Arroategi. Gainera, oleoz pintaturiko anaia bien erretratuak erosi eta Udaletxeko Areto Nagusiko lehentasunezko lekuan ipintzea erabaki eban. Gaur egun bertan dagoz.



## Allá donde mires verás innovación en energía

En el Ente Vasco de la Energía llevamos 35 años trabajando para que en Euskadi se consuma solo **la energía necesaria**. Apostamos por las **mejores fuentes energéticas, innovadoras y renovables**. Con los mejores recursos técnicos y humanos. Un esfuerzo que, después de tanto tiempo, es **visible allá donde mires**.

## 35 años con buena energía



RELOJERÍA - JOYERÍA

*Lejarraga*

Adolfo Urioste, 2  
Tlf: 946 25 06 30  
GERNIKA-BIZKAIA



ENERGIAREN  
EUSKAL  
ERAKUNDEA  
ENTE VASCO  
DE LA  
ENERGIA



# GAZTAINAK, KIRIKIÑOEN BABESEAN



**G**ozoa eta osasungarria, fruitu lehor hau, aldakorra eta zapoetsua, gaztainondoaren gintxaurra da (*castanea sativa*). Udazkenean eta neguan jaten da gehien bat eta XX. mende hasieran oinarrizko elikagaia zan geure baserrietan. Gaztaina erreak, labean eginak edota egosiak osasunarako guztiz onuragarriak dira. Gordinak jateak tripako mina eragin dezake.

**H**otza hasi eta gaztainak agertzen dira geure merkatuetan; kaleko postuetako gaztaina erreen usain gozoak erakartzen gaitu; eta basoan, orbel gainean, fruitu guragarri hau aurkitzen dogu be. Gaztaina arbolatik jauzi egiten denean, fruitua edo kirikiñoak heldu dira, baina ez hazia, gaztaina bera. Gaztaina beranduago heltzen da. Lurrean kirikiñoak zabaldu egiten dira gaztainak agerian itxiz.

Bilketa ahalik eta arinen egitea gomendagarria da. Izan be, gaztainak lurrean luzaro egoteak hauen kontserbazioa zaildu egiten dau. Behin batuta, egurrezko otzaretan edota sare-zakuan gordetzea komeni da. Plastikozko sakuak ezin dira erabili ez dabelako aireztatzeari laguntzen. Airatzea funtsezkoa da kontserbazinorako.

Geure inguruan, XX. mendeko lehenengo hamarkadararte gutxi gorabehera, gaztainondoaren fruituak kirikiñausietan gordetzen ziran. Kirikiñausiak zirkulu formako harrizko hesi txikiak dira. Hauek ate bat daukate. Hauen tamainua, gaztainondoraren tamainuaren arabera da. Bi hilabetez, gutxi gorabehera, gaztaina kirikiñotik erraz atera arte, animaliangandik edota hezetasunagandik babestea zan hauen funtzioa.

Denbora askoan gaztaina erromatarren garaian Ekialdetik ekarri zala pentsatu da; baina European, paleolito garaiko aztarnetan gaztainak aurkitu dira, dietaren funtsezko osagaia zan orduan.



Baina bere garapen eta ezarpena erromatarren garaian izan zan.

Euskadin gaztaina dietaren funtsezko elikagaia izan da XVIII. menderarte. Onura nutrizionalak eta gastronomikoak izan arren, bigarren mailan baztertua egon da beti. Patata eta artoaren sarrerak eta gaztainondoaren gaixotasunen garapenak protagonismoa kendu eutseezan. Baina aspaldian, artisau produktuen balio handitzeak goi mailako sukaldaritzak fruitu honi erreparatzea ekarri dau.

## Gaztaina zimelen akatsa

Askok indigaztainondoaren fruituari esaten deutsee gaztaina zimelak, *pilonga* delakoak. Toxikoa da fruitu hau. Baina egia esan gaztaina "normalak" dira zimelak, lehortutako gaztainak. Gordinak jateko idealak, osagarri gisa, hobe da beratzen jartzea hauek biguntzeko. Galizia da gaztaina zimelen jaioterria. Han kea erabiltzen da gaztainak sikatzeko eta horrela urte guztian kontserbatzen dira.

## BA AL ZENEKIEN?

- Medikuntza tradizionalak gaztaina erabili dau katarroa, beheranzkoa, asma eta bronkitisarako.
- Gaztainondoaren hostoen infusioa kukurruku-eztulerako erabili da eta Erdi Aroan kardiopatiak, bizkarreko mina eta erreumatismoa osatzeko erabiltzen zan.
- Gaztainak ule horiak argitzeko txanpuetan erabiltzen dira.
- Antxinan, gaztainen lorak pipan erretzen zan tabakoari usaina emoteko erabiltzen ziran.
- Euskal Herrian, neskek, dantza egitera joaten ziranean, gaztainondoko egur-ikatz zati bat eramaten ebeen, begizkotik babesteko. Baina, bitxia bada be, arrantzontzietan inoiz ez ebeen ez intxaurrik ez gaztainerik eramaten, zorte txarraren eragile zirelakoan.
- Resurrección María de Azkue jaunak jasotakoa da: gaztaina gordinak janez gero, sabelean zorriak sortzen zirela sinesten zuten Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait lekutan.
- Kortezubin, San Pedro egunean (ekainaren 29an) euria egiten ebanean, gaztaina ugari egongo zirela sinesten ebeen.

## GAZTAINAK JATEAREN ONURAK

- Fibra eta karbohidrato asko izanda asetzeko elikagaia da.
- Kaltzio, fosforo eta magnesioa dauke, hezur-sistemari eta haginei lagunduz.
- Diabetesa daukeen pertsonentzako baliogarriak dira, ez dauke kolesterolik.
- Idorreria prebenitzeari laguntzen dabe eta anemiari aurre egiteko lagungarriak dira.

## Gordinak, egosiak edo erreak

Gaztainak jateko hiru erak dira hauek, baina sukaldaritzarako daukaten aukerak anitzak dira. Uruna bezala, krema eginda, entsaladan, goarnizioan, postreetan, izozkietan...be jan ahal da.

### PRESTAKETA:

**Gaztainak ondo garbitu, sikatu eta ebagi azal biak pasatuz.**

**Artaginean:** Gaztainak zartaginan jarri su erdi-handian eta tapau. Noizean behin zartagina mugitu danak aldi berean erretzeko. 25 - 30 minutu barru, prest egongo dira. Oihal garbi baten sartu bero-berotan mantentzeko.

**Labean:** Aurretiz berotutako labean sartu tenperatua maximoan. 10 minutu labean itxi, buelta emon eta beste 10 minututan laban erre.

**Egosiak:** Egosi, 50 minutuz, su motelean, eta ondo gazitutako uran.

Berdean

# GOROSTIA, BASOAREN ITZALPEAN

**U**rdaibain askotan gorostiak aurkitzen dira basoaren babesean sakabanatuta. Bere habitata haresti eta pagadiak dira. Erraza da bere hostoen kolore berde iluna eta bere fruituaren gorri bizi bereiztea. Apaingarri gisa erabili da, batez be Gabonetan. Hau dala eta, bere hostoen ertz arantzadunek eta legeak berak babesten dabe.

Gorostia *Aquifoliáceas* familiakoa da, honen barne ia 400 mota ezberdinak dagoz. Basoko gorostiak babestuta dagoz. Apaingarri gisa erabiltzeko landatzen da. Bere egurrak ehundura uniforme eta sendoa dauka, ebanisterian oso preziatua, lantzeko gatx izan arren.

Gorostiaren ezaugarri nagusia bere hostoak dira, zurrinak eta distiratsuak, berde ilunak eta ertz ondulatu eta arantzadunekaz. Defentsa hau gero eta gogorragoa egiten da arbola handitzen doan heinean. Bere lore zuriak apiriletik ekainera loratzen dira eta bere fruitu

gorriak, idarren tamainukoak, urrian heltzen dira. Arbolan geratzen dira hauek udabarrirarte negua gogorregia ez bada. Lur hezetsuak eta sakonak behar dauz, horregatik basoen barneko babesak bilatzen dau. Isolatuta edota talde txikietan egoten da.

Garai batean, sendagai bezala erabiltzen zan, bere hostoen ezaugarri diuretikoengatik. Hosto hauek ardoan beratzen jartzen ziran bizigarri gisa erabiltzeko. Fruituak libragarri eta okagarri gisa erabili izan dira baina hobe ez irentsi, txokikoak direlako.

**TABERNA  
AUZOKOA**

**GERNIKA-LUMO**  
Tel. 94 625 16 66



Arrien Optika



Urkieta k. 10  
Tel./Fax: 946 25 63 63  
Email: [arrienoptika@yahoo.es](mailto:arrienoptika@yahoo.es)



## ZERGATIK DA GABONETAKO LANDAREA?

Gorostiak lotura asko daukoz Gabonagaz. Bere koloreak, berdea eta gorria, gabonetako apaingarrien kolorekoak dira. Antxinako istorioek dinoe Eleiz Katolikoak sartu ebala landare sakratu gisa migura ordezkatzeko, azken hau paganotzat hartzen zalako. Beste batzuk, zelten garaikoa zela dinoe, Haritz Erregea eta Gorosti Erregearen legendan oinarrituta. Haritzak garai argitsu eta epeletan agintzen eban, arbola hau emankorragoa zalako sasoi horretan. Eta Gorosti Erregeak sasoi hotz eta ilunean errainatzen eban. Gorostiaren loratzea eta fruitu emotea neguko solstizioan izaten da, hau da, Gabon garaiatik hur.

Historian zehar gorostiaren fruitua, bolatsu gorriek ezaugrri magikoak zeuzkatela pentsatu da. Horregatik erabili dira etxeak apaintzeko, Gabonetan batez be, zorte ona ekartzen dabelakoan.

## GOROSTIA NOLA ZAINDU

Gorostiak ez dau behar zainketa askorik. Baina landatzeko gune lehor eta drainatze onakoa behar da. Landatzeko uda amaiera edota udazken hasiera dira sasoirik onenak, hazteko eta loratzeko egokienak. Kanpoko landarea da baina ez dau ondo hartzen eguzki izpiak zuzenean hartzea. Erdi-itzalpean egon behar da eta ez da askorik ureztatu behar, hilean bitan gutxi gorabehera. Gune epel baten hazi ezker ur gehiago beharko dau.

Ez da oso bizkor hazten. Neguan adarrak moztu behar dira birlandatzeko eta udabarrian haziak batzen dira landatzeko. Horrela, gorosti ezberdinak landatu ahal izango dozuz lorontzi edota zeure lorategian. Ingurugiroari kalte egin barik, basoko gorostiei kalte egin barik, gorostia zeu landatu ezker zeure etxea apaintzeko erabili ahal izango dozu.

Urdaibain gorosti asko gordetzen dauen mendi autoktonoren bat bilatzea gatxa da. Izan be, hemen artadia da nagusi. Horregatik ale bakartiak aurki daitezke. Bermeon eta Oizen gorostidien guneak dagoz, batez be baso naturalan, gizonaren esku-hartze bako guneetan. Ebaketa txandak dauzkaten basoetan, pinudietan, kasuan kasu, 30 urtero makinak guztia moztu egiten dau, basoa guztiz desagertzen da eta bertan dagozen gorostiak be.

## EZAUGARRIAK

**Gorostia** (*Ilex aquifolium*) zuhaixka bat da, zugatz txikia, 20 metroko altuera izan ahal dau. Bizitza luzekoa da, 500 urte bizi ahal dauz. Hosto sinpleak daukoz, obalatuak, kolore berde bizikoak dira. Hostoak larrukarak eta arantzatsuak dira.

Emeek soilik ematen dabez fruituak. Fruitu hauek berde kolorekoak dira hasiera batean eta heltzen direnean, urrian edo azaroan, gorri kolorea hartzen dabe. Negu guztian landarean geratzen dira, horregatik erabili dira apaingarri gisa.

*Lur hezetsuak eta sakonak behar dauz, horregatik basoen barneko babesak bilatzen dau. Isolatuta edota talde txikietan egoten da.*



## Elikadura-segurtasuna eta ingurune-segurtasuna

**Kontrol analitikoak**

**Autokontrol planak: arrisku sanitarioen prebentzioa**

APPCC eta PGH - Igerilekuak, giza kontsumorako urak eta legionelosisia

**Diagnostiko integralak**

Barne Airearen Kalitatea (CAI), klimatizazioa, iraungitzeak, bizitza baliagarria, bio-diagnosiak

**Aholkularitza**

**Formakuntza**



Beti-Jai

# TXISTUA

# SOINU BATEN BILAKAERA

Txistua geure herrietako kulturaren eta musikaren parte da. Folklorean, Euskal dantzak, geure jai herrikoiak ez dira ezer bere soinu alaia barik. Soinu hau serioa bilakatzen da aurrekuetan. Danbolina da txistuaren lagun handia, bi musika-tresna musikari bakar batentzako. Hauek geure kale eta plazatan ibili dira batera, eta gero eta gehiago ikusten da txistua eszenatoki profesioaletan.

**T**xistuaren deskribapen sinpleena honako da: hiru zuloko flauta zuzena da eta esku batez jotzen da. Baina itxurazko sinpletasuna da, izan be, txistua jotzeak trebetasuna eta belarri on bat izatea eskatzen dau ondo afinatzeko.

Bere jatorria kokatzea gaxa da. Inportatutako flautatzat hartu bada be Euskal folklorea aparteko nortasuna hartu eban. XII. mendetik juglarea txistularien aitzindariak izan ziran. XVI. mende erdialdera, bibolinaren agerpenak bigarren mailara eraman eban txistua. Hori dala eta juglarea landa guneetan ahal zan moduan bizi ziran. Txistularia jai giroa alaitzen ibiltzen zanez, gizarte maila gutxiko gizonatzat hartzen zan sasoi baten. Zenbait lekutan borrarua izaten zan baita be txistularia. Baina XVIII. mendean norabide aldaketa garrantzitsua eman zan. Euskal nobleen talde batek Euskal ilustrazioa ekarri eban. Hauen eraginpean danbolinderoak sasoi gustuetara egokitutako musika jo, moldatu eta konposatzen hasi

ziran. Sartu ziran aldaketek txistuaren hedadura eta bilakaera ekarri ebeen, bi zortiduneko gama bat atera ahal dauen musika-tresna bat lortu arte; txistu handiagoa egin ebeen, silbote edo txistu luzea delakoa. Honek ahots askotariko idazketa polifonikoa ekarri eban. Horrela, hobetutako txistu honetarako konposizioak egiten eta egokitzen hasi ziran. Orduetik aurrera txilibitua musika-tresna tradizionalatzat hartu zan eta gune ezberdinetako ezaugarrietara egokitu zan.

## Txistularia edo danbolinderoa

Ilustrazioa garaietan, Euskal Herrian zinez instituzioa izan zan udal danbolinderoa. Gizarte mailan bereizketa handia sortzen denean eta boterea bertako ilustratu gutxi batzuk eskuratzen daben garaietan kokatzen da beraren hastapena. Honela, boterea gizarte-maila nabariaren adierazgarri gisa erabili eban danbolinderoa, "olgeta" publikoa kontrolatzeko bide ideala bezala, bai eta matxinadak sortzen ziran Herria desmobilizatzeko



## EUSKAL

## SOUVENIRS



Andra Mari kalea s/n.  
48300 **GERNIKA**

946 251 930 - 685 758 102



euskal.souvenirs@gmail.com

www.euskalsouvenirs.com



Visit **Urdaibai**  
© bai Nueva Europa

## IBILBIDE TURISTIKOAK

Kulturalak eta ekologikoak top  
NAHIERAN URTE GUZTIAN ZEHAR



Erreserbak: [www.visiturdaibai.com](http://www.visiturdaibai.com)



erabili be. Garaiko danbolinderoen zeregin nagusienak honakoak ziran: agintarien lagungarri izatea, herri-dantza eta alboradaren instituzioa. Baina euskal gizartea aldatuz joan ahala, txistularien lana gurasoengandik jasotzen zan, senitartean ondorengo hartuz.

Gaur egun ohore handia da txistularia izatea. Euskal Herriko Txistulari Elkartearen sorkuntzak lagundu eban horretarako, 1927. urtean. Hauek txistulari banden lehiaketak antolatu ebeen. Honi esker maila handiko musikariek formatu honetarako lan barriak idatzi ebeen eta Txistularien Alardeak sortu ziran. Euskal Herriko Txistularien Elkarteak taldekidetasun sentimendua sendo errotu eban txistu eta danbolin tresnak aukeratu ebezenen artean.

## Soinu berriak

Lehen txistueta hazurra edota kainabera erabiltzen zan eta geroago egurra. Geroago metala eta plastikoa sartu ziran. Baina txistuaren bereizgarria bere soinua da. Hauxe aldatuz joan da fabrikazio materialak aldatuz joan diren heinean. Kontutan izan behar da musika-tresna hau aire zabalean jotzeko jaio zala, horregatik da hain sakona bere soinua. Baina txistua leku zarratuetan jotzen hazi denean,

txistugileak garai barrietara egokituz joan dira, soinu gozoagoko musika-tresna bat landuz.

Euskal txistuaren ezaugarrietako bat, Europako ohiko txilibituen aurrean, XVIII. mendean musika-tresna folklorikoaren landatasuna hiri-garapen akademikoagaz batu ebazala da. Protokolozko ekitaldietan eta kamaramusikan egoan txistua. Musika garaikidean be egin dira esperimentuak. Baina publiko orokorrera iristeko txistuaren erregistroak zabaltzea da erronka. Kontserbatorioetako ikasketa ofiziala da txistua eta txistulari askok lan egiten dabe musika-tresna hau ohiko usadio folklorikoetatik atara eta gune barrietara eramateko. Txistuak egin dauen ibilbidearen adibidea bere soinuak geure mugak gainditu dauzela da. Madrilgo Antzoki Monumentalan edota San Petersburgoko Belozersky Palace ospetsura iritsi da txistua, Garikoitz Mendizabalen eskutik (Zestoa, 1973). Musikari hau Bilboko Txistularien Bandaren zuzendaria da eta txistuaren adierazgarririk onena da.

Mundakako aratusteetako txistulariak  
Foruko Urdaibai dantza taldeko txistularia

**ferrovial**  
servicios

**SIEMPRE AL SERVICIO DEL CIUDADANO  
CUIDANDO EL MEDIO AMBIENTE**

Bekoibarra, nº 31 / 48300 Gernika-Lumo / Tel. 94 625 47 27


**L&L**  
LOGÍSTICA

**TRANSPORTE,  
ALMACENAJE,  
DISTRIBUCIÓN..**

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika – Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es





## ***Lotu beharreko guztiak lotzen jarraitzen dugu, gero eta bidesari gutxiago ordain dezazun***

*Bizkaian lanean jarraitzen dugu gero eta errazago joan zaitezten edonora. Hori dela eta, Gipuzkoako autobideetara zabaldu dugu Bidesaria sistema.*

***Bidesaria 2018 • Gipuzkoa ere barruan***